


2013an, Euskadiko hoge eskualdeetatik hamalauri eragin zion industria-salmenten beherakadak

Eskualde guztiek agertu zituzten bilakaera negatiboak landun kopuruari dagokionez

Eustat erakundearen datuen arabera, 2013an, Euskal AEko hoge eskualdeetatik hamalautan, bilakaera negatiboa izan zuen erauzketaren eta manufakturaren industriako salmenta garbien bilakaera. Beherakadak % 1,3 (Arabako Errioxan) eta % 12,9 (Urola Kostan) ziren artekoak izan ziren. Bost eskualdek izan zituzten hazkunde positiboak; horietatik, Gorbeialdeak agertu zuen hazkunde-tasa altuena: % 10,1.

Euskadiko erauzketaren eta manufakturaren industriak, bere osotasunean, % 1,9ko jaitsiera izan zuen salmentetan. Lurraldeka, Gipuzkoak agertu zuen bilakaera txarrena (% 4,8); Araban ere jaitsi ziren, % 2,6, hain zuzen. Bizkaian, ordea, bestelakoa izan izan zen joera, eta salmentak % 0,4 igo ziren.

Erauzketaren eta manufakturaren industriako salmenta garbien banaketa, eskualdeka. Milaka eurotan. 2013



Iturria: Eustat. Industriaren estatistika

Sei eskualdetan bildu ziren guztizko salmenten % 74,4. Horien artean, hiru hiriburuak sartzen dira, eta haien bilakaera desberdina izan zen. Bizkaiko bi eskualdeetan, bai eta Donostialdean/Donostian ere, aldakuntza goranzkoa izan zen. Hala, Bilbo Handian, % 1,1 igo ziren salmentak; Durangaldean, % 0,7, eta Donostialdean, % 0,3. Deba Garaia (-% 7,6) eta Goierri (-% 6,8) ere nabarmentzekoak dira, baina beheranzko aldakuntza dela eta. Horiez gainera, atzera egin zuen Arabako Lautadak, Erkidegoko batez bestekotik bi hamarren baino gehiago (% 2,2) egin ere atzera.

Lurraldeka, Gipuzkoan, % 4,8 jaitsi ziren salmentak batez bestez. Urola Kostan jaitsi ziren gehien (% 12,9); eta, aurreko urtearen aldean, Donostialdeako eskualdeak besterik ez zuen izan hazkundea (% 0,3). Bestetik, aurreko urtearen salmenta garbien zifra ia berbera izan zuen Debararrenak.

Araban, Gorbeialdeak besterik ez zuen hazkunde tasa gorakorra agertu: % 10,1, hain zuzen. Beste muturrean, nabarmentzekoa da Arabako Kantaurialdeko eta Arabako Haranetako salmenten jaitsiera: % 9,3 eta % 4,1 gutxiago, hurrenez hurren. Arabako Lautadako salmentak lurralde historiko horretako guztizkoaren % 64 izan ziren 2013an, eta eskualde horretan apur bat gutxiago jaitsi ziren salmentak, lurralde osoko zifren aldean.

Erauzketa eta manufaktura industriaren salmenta garbien banaketa, eskualdeka. Milaka euro. 2013

	Pertsonal okupatua (kopurua)			Salmenta garbiak		
	2013	2012	Δ 13/12	2013	2012	Δ 13/12
Euskal AE	187.460	194.664	-3,7	47.140.936	48.077.044	-1,9
Araba / Álava	39.105	39.953	-2,1	10.405.390	10.683.712	-2,6
Arabako Ibarrek/Valles Alaveses	2.144	2.191	-2,1	453.761	473.090	-4,1
Arabako Lautada/Llanada Alavesa	24.168	24.423	-1,0	6.694.179	6.847.032	-2,2
Arabako Mendialdea/Montaña Alavesa	329	330	-0,3	62.173	63.098	-1,5
Errioxa Arabarra/Rioja Alavesa	3.547	3.570	-0,6	832.571	843.500	-1,3
Gorbeia Inguruak/Estribac. del Gorbea	2.463	2.578	-4,5	757.303	687.780	10,1
Kantauri Arabarra/Cantábrica Alavesa	6.454	6.861	-5,9	1.605.403	1.769.212	-9,3
Bizkaia	74.229	78.093	-4,9	21.998.510	21.910.009	0,4
Arratia Nerbioi/Arratia-Nervión	3.828	3.930	-2,6	790.782	849.166	-6,9
Bilbo Handia/Gran Bilbao	40.574	43.179	-6,0	15.289.154	15.124.083	1,1
Durangaldea/Duranguésado	17.307	17.886	-3,2	3.613.198	3.586.897	0,7
Enkartzazioak/Encartaciones	1.457	1.628	-10,5	296.588	317.784	-6,7
Gernika-Bermeo	3.210	3.339	-3,9	630.062	604.848	4,2
Markina-Ondarroa	3.462	3.523	-1,7	550.801	560.657	-1,8
Plentzia-Mungia	4.391	4.608	-4,7	827.925	866.574	-4,5
Gipuzkoa	74.126	76.618	-3,3	14.737.036	15.483.323	-4,8
Bidasoa Beherea/Bajo Bidasoa	4.137	4.315	-4,1	614.665	640.337	-4,0
Deba Beherea/Bajo Deba	8.060	8.202	-1,7	1.290.733	1.291.347	0,0
Debagoiena/Alto Deba	14.642	15.260	-4,0	2.789.362	3.017.354	-7,6
Donostialdea/Donostia-San Sebastián	18.615	19.032	-2,2	3.638.380	3.625.778	0,3
Goierri	12.058	12.337	-2,3	3.058.047	3.281.403	-6,8
Tolosaldea/Tolosa	7.268	7.455	-2,5	1.602.236	1.625.163	-1,4
Urola-Kostaldea/Urola Costa	9.346	10.017	-6,7	1.743.613	2.001.941	-12,9

Iturria: Eustat. Industriaren estatistika

Bizkaiko lurralde historikoak besterik ez zuen aldakuntza positiboa agertu bere salmentetan: % 0,4. Bizkaiko hiru eskualde hauetan lortu ziren emaitza positiboak: Bilbo Handia (% 1,1eko hazkundera eta lurraldeko salmenten gutzitzaoren % 70), Durangaldea (% 0,7) eta Gernika-Bermeoko eskualdea, salmenta-hazkunde handiena izan zuena lurralde osoan: % 4,2. Beste eskualdeei gagozkiola, nabarmentzekoak dira, aurreko urtearen aldean, Arratia-Nerbioiko eta Enkarterriko tasa negatiboak: -% 6,9 eta -% 6,7, hurrenez hurren.

Baliatutako langileen kopuruak ere ez zuen oso bilakaera positiboa izan, eskualde guztiek izan baitzituzten tasa negatiboak. Autonomia Erkidegoan, % 3,7 jaitsi zen batez beste, eta jokaera homogeneo samarra izan zen lurraldeka: jaitsiera apur bat nabarmenagoa izan zen Bizkaian (-% 4,9), Gipuzkoaren (-% 3,3) eta Arabaren (-% 2,1) aldean.

Araban, aipagarriak izan ziren Arabako Kantaurialdeko eta Gorbeialdeko enplegu-tasen jaitsierak: % 5,9 eta % 4,5, hurrenez hurren. Arabako Lautadan, non sektore horietan aritzen diren langileen % 62 baitihardu, % 1 jaitsi zen.

Bizkaian, enpleguaren bilakaera txarrena Enkarterriko eskualdeetan (-% 10,5) eta Bilbo Handian (% 6) jazo zen. Horrez gainera, han biltzen da lurralde osoko landunen % 55.

Gipuzkoako egoera Bizkaiko egoeraren antzekoa izan zen, enpleguaren bilakaera negatiboa izan baitzen eskualde guztietan. Urola Kostako eskualdea izan zen lanpostu gehien galdu zituenena (% 6,7), eta Debabarrena lanpostu gutxien galdu zituenena (% 1,7).

Metodologiaren inguruko oharra:

Sektoreak zehazteko, Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionala (EJSN-2009) hartu dugu erreferentzia modura. Eskualdeen arabera desagregazioan, B (erauzketa-industria) eta C (manufaktura-industria) sekzioak bakarrik sartu ditugu.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEKo industriaren estatistikari buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEKo industriaren estatistikari buruzko datu-bankua